



Gure historia hizpide

'Noaindik Amaiurrera 1522-2022' solasaldia eman du Beñi Agirre kazetari eta ikerlariak, Antonio Mercero gunean / 5

'Sarri'-rekin hizketan

Oriarte institutuko Literatura Unibertsaleko ikasleek Joseba Sarrionandia idazlea elkarrizketatu dute / 14

Maiatzeko emanaldiekin amaituko dira ikasturte honetako zinema saioak / 4

Ostadar Atletismoa saileko kideek domina ugari irabazi dituzte Gipuzkoako txapelketan / 11

txitxardin
BRASA ETA TRADIZIOA

**ZURE OSPAKIZUNAK BEREZIAK
IZANGO DIRA GURE JATETXEAN**

CASA HUMADA

Oria Etorbidea, 12 LASARTE-ORIA
943-04 62 97 | 662 06 66 79
info@casahumada.com

Ezkontzak | Jaunartzeak | Ospakizunak

MAITE

ESTETIKA ARETOA

Udaberrian, presta ezazu **azala** udarako!

Zure azal motarentzat tratamendu egokiena aukeratu dugu

ZERBITZU MISTOAK

Uistin Kalea z/g, Lasarte-Oria • Tel. 943 37 08 45

Literatur lehiaketara lanak aurkezteko epea

Maiatzaren 13ra arte izango dute interesatuek Lasarte-Oriako literatur lehiaketara lanak aurkezteko aukera; hala iragarri du udalak. Aurreko urteetan bezala, euskarazko eta gaztelaniazko poesia, ipuin eta mikrokontakizun lanak sarituko dituzte

Txintxarri

Idazlanek jatorrizkoak izan behar dutela ohartarazi dute antolatzaileek, eta zenbait espezialitate eta kategoriatan lehiatu ahalko dute parte hartzaileek. Zehaztu dituzte kategoria horiek ere zeintzuk izango diren: haurrena eta helduena.

Lanak aurkezteko epealdia amaituta, sari banaketa etorriko da; azaroaren 19an egingo dela jakinarazi dute.



lazio lehiaketako saridunak, udal ordezkariak ondoan dituztela. TXINTXARRI

Kategoriak

Haurrentzako kategoria:

A kategoria: 2013. urtean eta hurrengoetan jaiokak.

Euskarazko ipuina (gai librea, gutxienez folio bat)

B kategoria: 2010, 2011 eta 2012. urteetan jaiokak

Euskaraz ipuina (gai librea eta gutxienez bi folio)

C kategoria: 2007, 2008 eta 2009. urteetan jaiokak:

Euskaraz ipuina (gai librea, gutxienez hiru folio)

Poesia euskaraz (gai eta metrika libreak, gutxienez 60 bertso-lerro)

Espezialitate eta kategoria bakoitzeko sari hauek zehaztu dituzte:

1. saria: 200 euro eta diploma.

2. saria: 150 euro eta diploma.

3. saria: 100 euro eta diploma.

Helduentzako kategoria:

Poesia euskaraz. Gai eta metrika libreak eta 300 bertso gehienez.

Saria: Diploma eta 650 euro.

Euskarazko poesiako Lasarte-Oria saria.

Gai eta metrika libreak eta 300 bertso gehienez (1995 eta 2005 bitartean jaiotakoentzat).

Saria: Diploma eta 650€uro.

Poesia gaztelaniaz.

Gai eta metrika libreak eta 300 bertso gehienez. Saria: Diploma eta 650€uro.

Gaztelaniazko poesian,

Lasarte-Oria saria. Gai eta metrika libreak eta 300 bertso gehienez (1995 eta 2005 bitartean jaiotakoentzat).

Saria: Diploma eta 650€uro.

Mikrokontakizuna euskaraz. Gai librea eta gehienez 1.500 karaktere, zuriuneak barne. Saria: Diploma eta 650 euro.€

Euskarazko mikrokontakizuneko

Lasarte-Oria saria. Gai librea eta gehienez 1.500 karaktere, zuriuneak barne (1995 eta 2005 bitartean jaiotakoentzat). Saria: Diploma eta 650€uro.

Mikrokontakizuna gaztelaniaz.

Gai librea eta gehienez 1.500 karaktere, zuriuneak barne. Saria: Diploma eta 650 euro.€

Gaztelaniazko

mikrokontakizuneko Lasarte-Oria saria. Gai librea eta gehienez

1.500 karaktere, zuriuneak barne (1995 eta 2005 bitartean jaiotakoentzat). Saria: Diploma eta 650€uro.



Asteon aurkeztu dute IX. Lore eta Landareen azoka. TXINTXARRI

Loreen eta landareen erakusleiho, Okendo plaza

Garaiko landareak, barnerako zein kanporako, zuhaixkak beste hainbat motatakoak erosteko aukera eskainiko dute

Txintxarri

Lore eta Landareen IX. azokak hartuko du Okendo plaza larunbat honetan, hilak 30. Behemendi elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak antolatzen dute jarduera, eta iragarri dutenez, aurtengo merkatua Okendo plazara ekarriko dute berriro ere (Andatza plazan egin zen iaz, koronabirusak eragindako egoera medio). 10:00etatik 14:30era izango dute bezeroek erosketak egin edota postuetako eskaintzak ikustera gerturatzeko aukera.

Antolatzaileek azpimarratu dute, "Gipuzkoako lore eta landare ekoizle-profesional nagusiak" bilduko direla azoka horretan; 85,5 metro karratu izango ditu. Landare Azokak elkarte osatzen duten kideetako zazpi ere etorriko dira Lasarte-Oriara. Behemendi landa-garapenerako elkarteak zehaztu du elkarte horren helburua dela gisa horretako feriak sustatzea lurraldeko herrietan.

Azokaren xede "bakar eta nagusia" zein den ere kontatu dute: baserriko produktuen salmenta bideak sustatzea. Hala, salerosketa puntu izateaz gain, baserriko produktuen promozio eta erakusketa gune ere badira. Gainera, ohartarazi dutenez ekoizle eta kontsumitzaileen arteko harreman zuzena ahalbidetzen dutela, eta, noski, familia ekonomia, tailer txikien eta ustategien bizi iraupena ziurtatzen.

2002an hasi zen Behemendi baserrietako produktuen azoka bereziak antolatzen, nahi nagusi batekin: orokorrean lehen sektoreak bizi duen beherakadari irtenbide ematea.

Garaiko landareak, barnerako zein kanporako, zuhaixkak, jangarriak diren fruitu txikien zuhaitza ekologikoak, landare aromatikoak eta sukaldean erabiltzekoak, kaktusak, landare zukutsuak eta bonsaiak erosteko aukera izango dute bertaratzen direnek.

Musika elektronikoa eta herriko ondarea uztartuko dituen jaialdia

Herriari "bultzada bat" emateko asmoz antolatu dute Dantz Point egitasmoa; 19:00etatik 00:00etara izango da

Txintxarri

Ama Brigitarren komentu inguruan ez dira ohiko elizkizun doinuak entzungo larunbat honetan, apirilaren 30ean, musika elektronikoa baizik. Jokin Telleria

lasarteoriatarrek sortutako egitasmoak, Dantz Point izenekoak, herriko ondare historiko edo artistikoa eta musika elektronikoa uztartzea du helburu. Jaialdia, esan bezala, larunbatean egingo

dute, 19:00etatik 00:00etara. Bi DJk girotuko dute eguna: Paolo Solo-k eta Furonia-k.

Gazteak izan arren, eskarmentu handiko bi DJ dira Paolo Solo eta Furonia. Elkar ezagutzen dute, makina bat aldiz aritu baitira elkarrekin Gipuzkoako eszenatoki eta areto esanguratsuetan.

Antolatzaileek jakinarazi dute aipatu jaialdia herrian egiteko asmoa ez dela berria, baina pandemia tarteko bi urtez atzeratu behar izan dutela.



Udal ordezkariak eta DJak egitasmoa aurkezten. TXINTXARRI

'Apelliduak' euskarara ekartzeko egitasmoa

Gaztelaniazko grafia duten abizenak euskalduntzeko kanpaina jarri dute martxan Buruntzaldeko udalek. Azaldu dutenez, tramitea egitea "oso erraza" da, eta agiri gutxi batzuk besterik ez dira eraman behar herrian herriko udaletxeko bake epaitegira

Txintxarri

Urtero legez, Buruntzaldeko udalek gaztelaniazko grafia duten abizenak euskarara ekartzeko egitasmoa jarri dute martxan. Azaldu dutenez, aldaketa egitea "oso erraza" da. Eskuorri bat banatu dute biztanle gazteen artean, baina helduagoak direnek ere badute tramite hori egiteko aukera, Lasarte-Oriako Udaleko Euskara batzordeburu Jon Antxordokik azaldu duenez. "Herriko zenbait puntu esanguratsutan utziko ditugu diptiko batzuk, interesa duen orok zehazki zer egin behar duen jakin dezan".

Zure abizena *Echeverria* bada eta *Etxeberria*-ra aldatu nahi izanez gero, "oso erraz" egin dezakezu Buruntzaldeko udaletako bake epaitegietan. Berriki abiatu dute aurtengo kanpaina, eta zehaztu dutenez, agiri gutxi batzuk baino ez dira behar. Antxordokik azaldu du hauek direla lasarteoriarrek bertara eraman behar dituztenak: Errolda agiria, udaletxeko bulegoetan egiten dena; jaiotzagiri literala, herriko bake epaitegian egiten dutena - Donostian erregistratuta egonez gero, hiri horretara joan behar dute, Kalkutako Teresa plazako epaitegira-; NAN agiriaren kopia



Udaleko Euskara batzordeburu Jon Antxordoki, bake epaitegiko sarreran. TXINTXARRI

bat; eta, ezkontuta egon edo seme-alabaren bat izanez gero, familia liburua.

Herritar batek bere abizenaren euskarazko baliokidea zein den jakiteko, Euskaltzaindiaren *Onomastika* atala -<https://www.euskaltzaindia.eus/hizkuntza-baliabideak/onomastika-kontsultatu-behar-du>.

2000. urtetik martxan

Erregistro zibilaren legearen 40/1999 erreformak ahalbidetu zuen deiturak zuzenean euskalduntzea, ordura arte abizenak aldatzeko prozeduraren

bitartez egiten baitzen hori. Orduz geroztik, makina bat izan dira *apelliduak* abizentzera animatu diren pertsonak.

Esan bezala, eskualdeko herri guztietako kanpaina martxan dago aurten ere; 2009-2010 ikasturtean euskarazko egitasmoak elkarrekin burutzeko plan bat adostu zuen eskualdeko udal guztiek: horretan jaso zuten Apelliduak abizendu.

Zalantzarik izanez gero, lasarteoriarrek euskara@lasarte-oria.eus helbide elektronikora idatzi edo 943-37 61 84 telefonora dei daiteke.



NEURE KABUZ
LIERNI REKONDO

Aje emozionala

Udaberriak agindu lez loratze hilabetea izan da aurtengo apirila. Loratze kulturala, emozionala eta kolektiboak koloreztatu baitu herria.

Korrikaren aurkezpenean aipatu gisan oraindik airean dabil lehen izan ginenaren errautsa. Edonora joan eta gure burua justifikatu behar dugu, eskatu behar ez lizkiguketen azalpenak ematen; baietz Lasarteoriarrek garelako eta euskaraz ederki egiten dugula hala ere. Eta kasualitatea ez dela frogatzeko elkarrizketa argudiatzen jarraitu behar dugu solaskide mesfidatien aurrean, azalduz, Lasarten badagoela euskaraz bizi nahi eta haren alde egiten duen euskal komunitate bat hizkuntzaren normalizazioa eta herritar ugariaren euskalduntzea ahalbidetu duena. Txiki sentiarazten gaituzte orduan, eta lotsatu egiten gara maiz nondik gatozen esateaz.

Horregatik, hizkuntza normalkuntzaren eta euskalduntzearen alde hamarkadaz hamarkada horrenbeste lan egin duen herri batentzat, aurreiritziak pisu direnarentzat, aingura hegodunak dira Korrika bezalako ekimenak. Barruan duguna ateratzea ahalbidetu eta kolektibotasunak dakarren indarra agerian uzten laguntzen baitu, hizkuntza, kultura eta herriarekiko atxikimendua berhartuz. Arrazoi dute zerbaiten alde egotetik zerbaiten alde egitera alde handia dagoela diotenez, baina, horrelako ekimenek eragindako sentipenei eta kolektibotasunari eutsiz gero, errazagoa da hitzetatik ekintzetara pasatzea.

Aitortzen dut hunkitu egin nintzela, Hipodromoko zubian, oraindik eguna esnatu gabe zegoela, hainbeste jende ikustean lekukoa noiz iritsiko zain, urduri, ilusioz, pozik... Hunkitu egin nintzela baita ere, herrikide sudurgorriek lekukoa hartzerakoan jaso zuten txalo zaparrada entzutean ere. Eta esperantza piztu zidala Faktorian eta Euskara Batzordean diharduten gazteen inplikazioa eta gogoia ikusteak. Zer esanik ez, herriko hamalau bertsolari gaztek, Lasarten, euren herrian, goraino beteta zegoen Jalgi Kafe Antzokian lehen plaza egin izanak: emozioa eta harrotasuna bider bi.

Guztia politizatzen dugun aro honetan, dena da politika eta aldi berean ezer ez. Batzuetan, sabelean dauzkagun tximeletek argitzen digute bidea.

Zeinen goxoa eta berezia izaten ari den hilabete honek ekarri duen aje emozionala... Argi eta garbi ondorioztatu baita bazterrek nahasteko gogoia dugula, elkarrekin egoteko, bizirik gaudela erakutsi eta euskaraz bizitzearen alde oihu egiteko.

Ezin kabitzeraino puzten da horrelakoetan herri harrotasuna. Euskarak behar gaitu, herriak behar gaitu eta bide luzea dugu aurretik, baina, zorionak Lasarte, bide onean goaz ta!



BEGIRALE LAN-POLTSA

(Udako Txoko eta udalekuetarako)

18 urte baino gehiago badituzu eta udaran begirale izan nahi baduzu, bidali eskaera-orria beteta maiatzaren 2a baino lehen.

BALORATUKO DIRA: -Begirale edo zuzendari titulua. - EGA edo baliokidea den agiria. - Ikasketak. - Lan esperientzia.

BEHARREZKOA: -Sexu delitua egiteagatik aurrekari penalak ez dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Eskaera orria: www.labor.eus/ttakunbegiraleak2022
begiraleak@ttakun.eus | Geltoki 4 Lasarte-Oria | 943-37 14 48



Antza Komunikazio Grafikoak

diseinatzaile-maketatzailea behar du

Eskatzen dena:

- Diseinu grafiko eta editorialeko programa desberdinak menperatzea (Indesign, Illustrator, Photoshop...)
- Diseinu zein maketazio lanetan esperientzia izatea euskarri desberdinetan
- Euskara menperatzea.
- Ikasketak: Erdi edo goi-mailako ikasketa espezializatua izatea

Baloratuko dena:

- Ilustrazio eta marrazketa lanak egiteko gaitasuna.
- Inprenta edo/ta estudio grafikoetan esperientzia izatea.

Eskaintzen dena:

- Lanaldi osoko kontratua.

Bidali curriculum eta portafolioa info@antza.eus helbidera
 2022ko apirilaren 30 baino lehen "diseinatzaile-2022"
 erreferentzia adieraziz.



antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOAK



Kultura eta hezkuntza zinegotzi Maite Iglesias, Agustin Valdivia alkatea eta Juantxi Ugarte kultura teknikaria. TXINTXARRI

Zinema, antzerkia, dantza... datorren hilean

Asteon aurkeztu du Lasarte-Oriako Udalak maiatzeko kultur egitasmoen zerrenda. Askotariko ekintzak iragarri ditu, horien artean film proiektzioak eta antzerkiak. Maiatzeko saioek itxiko dute ikasturteko igandeetako zinema zikloa

Txintxarri

Orkestra lurtarra haurrentzako filmak eta *La peor persona del mundo* helduentzako proiektzioak irekiko dute maiatzeko kultur agenda. Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan ikusi ahal izango dira, ordutegi ezberdinetan. 17:00etan izango da lehena eta lau euro balio dute txartelek.

Bigarrena, berriz, 19:30ean hasiko da, eta sei euroko kostua dute.

Opera zaleentzat hitzordua izango da maiatzaren 4an; *Il puritani* obra ikusteko aukera izango dute. 19:00etan izango da eta bertara joateko sarrerak erostea ezinbestekoa da; kultur etxeko leihatilan jarriko dituzte salgai, zazpi euro eta erdi eta bederatzi euro artean balio dute.

Film gehiago eta antzerkiak

Hirugarren zinema saioa izango da hilaren 6an, oraingoan Okendo Zinema Taldearen eskutik. *El callejón de las almas perdidas* filma proiektatuko dute, auditorioan, 20:30ean. Sarrerak sei euro balio dute.

Antzerki obrak ikusteko aukera ere izango dute herritarrek. Maiatzaren 7an izango da lehena.

MUNTTERI AEK-REKIN ELKARLANEAN, IRAKURRALDI BERTSOTUA ANTOLATU DUTE

Noa uy, uy, uy! familia antzezlanaren taularatuko du Panta Rhei teatro taldeak. 17:00etan hasiko da, eta sarrerak lau euro balio dituzte.

Igandeetako zinema saioekin jarraituz, beste bi saio izango dira hilaren 8an. Haurrentzako saioa ohiko ordutegian izango da, 17:00etan, eta *Las aventuras de Pil* ikusteko aukera izango dute etxeko txikienek. Sarrerak lau euroan eros daitezke. Helduentzako, aldiz, *En su punto* filma aukeratu dute. 19:30ean proiektatuko dute, sei euroko sarreraren truke.

Khea Ziather-ek *Winona & Grace* antzezlanaren ekarriko du herrira. Maiatzaren 14an oholzaratuko dute kultur etxeko auditorioan, 20:00etan. Sarrerak sei euro balio dute.

Beste hiru zinema saio ere izango dira hilabetea amaitu aurretik. *El secreto de Vicky* da haurrentzako aukeratu dutena. Maiatzaren 15ean, 17:00etan emango dute, auditorioan eta lau euroko sarreraren truke. Helduentzat, berriz, *La ciudad perdida* iragarri dute. Egun berean proiektatuko dute, baina bi ordu eta erdi geroago, 19:30ean. Paseek sei euro balio dute. Okendo Zinema Taldearen eskutik, aldiz, *Alcarrás* ikusteko aukera izango dute zinema zaleek, maiatzaren 20an. 20:30ean hasiko da emanaldia eta txartelek sei euro balio dute.

Bertsoak eta dantza ere bai

Lasarte-Oriako Muntteri AEKrekin elkarlanean, eta Korrika Kulturalaren barruan, irakurraldi

bertsotua antolatu dute. Uxue Alberdi idazle eta bertsolariaren *Dendaostekoa* liburua oinarri hartuta egingo dute saioa. Idazleak bere lanaren pasarte bat irakurri eta hortik abiatuta arituko dira bertsoan Ane Labaka eta Nerea Ibarzabal; Aitor Noval lagunduko ditu musikarekin. Maiatzaren 27an izango da egitasmoa, 19:30ean, kultur etxean. Sarrerak sei euro balio dute.

Koronabirusak eragindako osasun egoeraren ondorioz bi urteko etenaldia egin ostean, Erketz Euskal Dantza Taldearen Dantzari Txiki Egunak hartuko du herria berriro. XXXII. edizioa izango da aurtengoa, eta hilaren 29an egingo dute. 11:30ean hasi eta 13:15ean amaituko dela jakinarazi dute antolatzaileek.

Ttakun KEren jarduerak

Ttakun Kultur Elkarteak eta udalak antolatuta udaberriko bertso saioa egingo dute bihar, hilak 30. Ane Labaka, Maialen Lujanbio eta Alaia Martin igoko dira oholza gainera, eta hainbat gonbidatu berezi ere bai, Bea Egizabal aktorea tartean. Sarrerak 6 euro balio dute.

Bestalde, maiatzaren 8an erromeria antolatu dute Azkortekeko basilizian. Egitaraua: 11:00etan, meza. 12:00etatik aurrera, herri kirolak. Bien bitartean, Ttiriki Ttaraka eskolako lagunek girotuko dute erromeria. Azkorterera igotzen diren herritarrek indarrak berritzeko jakiak eta edariak izango dituzte.

Azkuraren jatorria topatu nahian aritu dira aktoreak

Txalo Produksioak taldeak 'Lehendakari gaia' komedia taularatu du kultur etxeko auditorioan

Txintxarri

Aukeratu berri den lehendakaria kargu hartze ekitaldirako diskurtsoa prestatzen ari da. Ispilu aurrean jarri da esan beharrekoa errepasatzen eta sudurrean azkura nabaritu du.

Hazka eginda ere, bueltan da etengabe. Eutsi egiten badio, aurpegi arraroak jartzen ditu. Jende aurrean horrela agertu ezin dela jabetuta, medikuen laguntza bilatu du. Otorrinologikoa esan dio

azkuraren arrazoia ez dela fisiologikoa eta psikiatra batekin hitz egiteko. Horren aurretik, ordea, irtenbide naturalago bat probatuko du lehendakari gaiak, emazteak hala eskatuta. "15 urtetan ez diot kontra egin, ez neukan gaur hasteko asmoa". Horien guztien berri eman dio antzezlanaren hasieran mahaiaren beste aldean, aurrez aurre duen psikiatrari.

Azkuraren jatorria topatu nahian, psikiatrak hainbat galdera egingo dizkio lehendakari gaiari.



Iker Galartza (ezkerrean) eta Zuhaitz Gurrutxaga (eskuinean) aktoreak. TXINTXARRI

"Historia kontatzeko moduan dago gakoa"

Beñi Agirre kazetari eta idazleak luze eta zabal hitz egin du Nafarroako erresuma zenari buruz Antonio Mercero gunean. Noingo eta Amaiur gazteluko gudak oinarri hartuta, gertakari historiko, anekdota, analisi eta gogoeta ugari partekatu ditu ikus-entzuleekin

Iñigo Gonzalez Sarobe

Euskal Herriaren memoria kolektiboa berreskuratzeko eta ezagutzeko ahaleginean "urte asko" daramatza Nabarralde fundazioak. "Gure historiaren kontzientziak egungo errealitatean bizi ditugun arazoetako asko nondik datozen ulertzen lagunduko digu, eta etorkizunari elkarrekin ekiteko orduan gure erreferenteak zeintzuk diren argi ikusten ahalbidetuko digu". Norabide horretan, hitzaldia eta erakusketa antolatu dituzte Lasarte-Orian egunotan. Beñi Agirre kazetari eta idazleak *Noaindik Amaiurrera, 1522-2022* solasaldia eman zuen hilaren 26an Antonio Mercero gunean, Nafarroako erresumako herritarrek Noingo guda galdu eta ia urtebetera Amaiurko gaztelua hartu zutenetik bost mende betetzear direnean.

Nafarroako erresumaren historia luze eta zabal ikertu du Agirrek, eta hitzaldia hasi bezain pronto zehaztu du bere



Herritarren jakin-mina piztu du Beñi Agirreraren solasaldiak. TXINTXARRI

kontakizunaren "subjektu nagusia" direla euskaldunak, ez "bazterreko zati bat, eta segun eta nork egiten duen kontakizuna, hori ere ez". Zentzu horretan, ikerlari hernaniarrak uste du gakoa dela "jazotakoa nola

kontakizunaren den eta horren gainean nola lan egiten den".

Nafarroako erresuma izandakoaren historia, bilakaera eta gainbeherari -gertakari esanguratsuenetako bat Gaztelako erresumaren 1512ko inbasioa izan

zen- buruz solastu da Agirre ikus-entzuleekin. Aipatu dituen daten artean, hona hemen nabarmentzeko bat: 824. urtea, Eneko Aritzak Nafarroako erresuma sortu zueneko. Lurraldeari dagokionez, 1035 eta 1050 artean hedatu zen gehien. Orduz geroztik, ordea, indarra eta lurrak galtzen hasi zen, Gaztelak 1512an inbaditu zuen arte. Urtez urte gertatutako bataila eta guda ugari ekarri ditu gogora, ondorio hau berresteko: "Historialari ugari esaten saiatu izan direnaren kontrara, herri indartsua zen, teknologikoki aurreratua eta garatua". Beste hainbat gogoeta ere egin zituen, eta argi utzi nafarrak ez zirela gogo onez batu Gaztelako erreinura, baizik eta independente izateko borrokatzen jarraitu zutela, eta ez zutela batere erraz amore eman.

Nafarren erantzuna

Albako dukeak gidatu zuen Gaztelako gudarostearen eraso 1512an. Nafarrek tinko erantzun arren, garaiak izan ziren hilabete gutxi batzuetan. Independentzia galdu berri zuten erregeek eta herritarrek kontraeraso bat baino gehiago egin zituzten konkistan galdutakoa berreskuratzeko: hor kokatzen dira 1521eko ekainaren 30ean Noainen borrokatu zuten bataila eta Amaiur gaztelua hartu izana, 1522an.

Azalpen historikoak eman bitartean, Iñaki Sagredo historialariaren mapa bat

erakutsi du; Nafarroako erresumak bere garaian izandako gaztelu guztiak jaso ditu bertan. "Lan eskerga egin du Sagredok, mapa osoa erabili duelako, eta ez gaur egungo autonomia erkidegoak. Esan dudana bezala, historiaren kontaketa metodo kontua da".

Antonio Mercero bertaraturakoak luze eta zabal jardun ziren Nafarroako erresumaren historiari, gaur egungo Euskal Herriaz eta beste hainbat gaiz. Horren gustura aritu ziren, ezen "beste solasaldi bat edo bi" antolatzeko premia ikusi zuten hizlariak. Ikus-entzuleetako askok baietz egin zuten buruarekin, eta baten batek galdetu zion ea zer egin behar zuen Nabarralderen egitasmoa diruz laguntzeko, fundazioa egiten ari den lanak liluratuta.

Agirreraren hitzaldia ez ezik, Nabarralde fundazioak Noingo bataila lau artistaren begiradapean erakusketa antolatu du, eta Antonio Mercero gunera ekarri. Bisitatzea joan nahi dutenek gaur izango dute horretarako azken aukera, hilak 29, 18:00etatik 20:30era.

"NAFARROAKO ERRESUMA TEKNOLOGIKOKI AURRERATUA ETA GARATUA ZEN"

Lasarte-Oriatik Oriara arteko martxa antolatu du Sarek

Maiatzaren 7an jarri dute hitzordua, 09:15ean Okendo plazan. "Ibilbidea edonork egiteko modukoa izango da"

Txintxarri

Etixerako bidea gertu! lelopean, hamaika mobilizazio egingo dituzte maiatzaren 7an, Euskal Herri osoan, euskal presoei "behingoz" espetxe legedia arrunta "bere osotasunean" aplikatzea eskatzeko. Elkaraguneetako bat Orio izango da, eta bertako herritarrekin elkartuko dira inguruan bizi direnak, baita lasarteoriarrak ere. Lasarte-Oriako Sarek jakinarazi duenez, mendi martxa antolatu du, eta 09:15ean aterako dira Okendo plazatik. 45 minutu geroago

elkartuko dira Usurbilgo zutabeko lagunekin, eta Aginagatik barrena joango dira Oriarantz. Menditik joanagatik, ibilbideak zailtasunik ez duela zehaztu dute antolatzaileek, eta "edonork egiteko modukoa" dela. "Dena den, oinez joan nahi edo ezin duenak, beste garraibide batzuk erabil ditzake: trena, autobusa, bizikleta, autoa, eta abar".

Behin Oriara iritsita, egun osoko egitarauaz gozatuko dute bertaraturakoek. Ekitaldi nagusia 13:30ean egingo dute, eta ordu erdi geroago bapo bazkalduko.

Haur jolasek eta kontzertuek giroa duten arratsaldea. Bazkarirako txartelak erosi nahi dituzten herritarrek Tiburtzio Artizar tabernan eros ditzakete, maiatzaren 4ra arte.

Izan Bidea, urriaren 8ra arte

Mobilizazio horietan urruntze politika "behin betiko" amaitzea eta euskal presoei legedia arrunta "bere osotasunean" ezartzea eskatuko du Sarek. Maiatzaren 7ko egitasmoa Izan Bidea dinamikaren barrukoa da, eta erronka horretan kilometroak batzea (3.127.326, zehazki) da helburua. Urriaren 8an amaituko da Izan Bidea.

Bestalde, Sarek eta Lasarte-Oriako Presoen Aldeko batzordeak hilaren 29an egingo dute Azken Ostirala. Elizatze plazan elkartuko dira, 20:00etan.

Maiatzaren 4an eta 7an egingo ditu ULEk ate irekien saioak


Usurbilgo Lanbide Eskolak (ULE) atek irekiko ditu maiatzaren 4an eta 7an, erdi zein goi mailako zikloak ikasteko asmotan dabilzanek zentroaren eskaintza ezagut dezaten. Jardunaldi horietan parte hartu nahi dutenek eman beharko dute izena. Horren bitartez, talde txikitik antolatutako bisitatu dituzte.

ULEk azpimarratu du honezker bertan ikasten dutenek aukera dutela Erasmus egonaldia egiteko atzerrian, STEAM prestakuntza osagarria jaso dezaketela eta lehen mailatik hasten direla hurbiltzen enpresa mundura, praktikaldien zein Dual programaren bitartez.

Biyak Bat egoitzak hainbat jakinarazpen egin ditu egunotan

Martxa ederra hartuta dabilta Biyak Bat egoitzako kideak. Esate baterako, laster hasiko dira prestatzen aurtengo San Pedro Jaietan egingo dituzten jarduerak: jokoak eta mugikortasuna lantzeko ekimenak izango dira. Izena emateko epea maiatzaren 9an irekiko du.

Egun batzuk lehenago, sakelako telefonoak erabiltzen ikasteko saio bat egingo dute, maiatzaren 4an, egoitzan bertan, 16:00etan. Azkenik, Algarbe (Portugal) eta Cadizeko kostaldera bidaiatzeko asmoa dutenentzat abisua luzatu du Biyak Batek: maiatzaren 3tik 6ra egin beharko dute bigarren ordainketa, bulegoan, 10:00etatik 12:30era.



HAU DA LIRDINGA!

SUDOKUAK

Beheko sudoku hauek gaineko irudiko laguntxoan ibilerarekin dute zerikusia. Barraskiloa ASTIRO doa beti, eta erbia, berriz, ARIN. Osa itzazu bi sudokuak, hutsik dauden laukietan behar diren hizkiak idatziz (seiko sudokuan A, S, T, I, R eta O, eta

laukoan A, R, I eta N). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

R	I	T	O		A
O				R	T
S			A		I
T	A		R		S
I		R			O
A	O		T	I	

R	N		
	I		N
I		N	A
			R

Bilatu

Animalia hauetatik bat ez dago mundu-mapan. Zein?



Handitik txikira

Ordena itzazu hartz hauek handitik txikira, 1etik 9rako zenbakiak erabiliz (handienari 1 eman eta txikienari 9).



ZER DA AZIDO AZETILSALIZILIKOA?

NOLA EGITEN DU ERLEAK BURRUNBA?


KAKA ETA GOROTZA GALIZA BERA AL DIRA?

NON DAGO UNIBERTSOA?

NOLA SORTZEN DIRA UMEAK?

Nola lortzen dira erantzunik gehienak? GALDETUZ, jakina. Hitz ederra, sudoku handi hau osatzeko. Zortzi hizki dituzu hutsuneak betetzeko (G, A, L, D, E, T, U eta Z).

	Z		G	E		U	
		D		Z	L		G
A	T		U	G			L
G	L	E	D	U	Z	T	A
		G	Z		U		T
	U		A	D	E		Z
D	G			T	A		E
	A	T			G	D	






Hara!





Gaixoak pinguinoak!
Laster beren bizimodua egokitu beharko dute, Lurraren tenperatura igotzen ari baita. Beno, baina hemen ez dirudi horren gaizki daudenik ere, ezta? Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. 16 dira guztira.



DOMINOAN



Bete itzazu lauki zuriak domino-zati honek zentzua izan dezan.



Eguzkia · Lurra · ilargia · meteoritoa · planeta · izarra



Euskara normalizatzen laguntzeko urrats bat

Buruntzaldeko udaletako Euskara zerbitzuek Ticket Bai fakturazio sistema euskaraz ezartzera animatzen dituzte merkatariak. Horretarako, dirulaguntzak prestatu dituzte edo horretan ari dira. Hainbat komertzio hasi dira honezkero haien negozioak egokitzen

Txintxarri ESKUALDEA

Ticket Bai egitasmoa Eusko Jaurlaritzak eta EAEko hiru foru aldundiek elkarlanean garatu dute, eta, funtsean, enpresen zein autonomoen diru sarrerak kontrolatzeko bidea izango dute lurraldean lurraldeko ogasunek. Helburu nagusiak, sustatzaileen hitzetan, hauek dira: zergapekoei laguntza ematea haien zerga betebeharrak betetzeko, eta iruzur fiskalaren aurka borrokatzea. Arabak, Bizkaiak nahiz Gipuzkoak ez dituzte epe eta erritmo berak; azken horretan, esaterako,

negozioek aurten eta hurrengo urtera bitartean ezarri beharko dute sistema, eta sektore bakoitzak epe desberdina izango du. Zerga kudeaketaren profesionalak, adibidez, aurtengo uztailean hasi beharko dute; jarduera profesionalak, irailean; txikizkako merkatariak, ostalariek eta ostatu sektorekoak, azaroan; garraioa eta aisia, higiezinaren sustapena, eraikuntza eta kultura eta pertsona zerbitzuak arloek, 2023ko apirilean; eta fabrikazioa, handizkako merkataritzak, telekomunikazioak, finantzak, artistak eta behartuta

egongo diren gainerako alorreko profesionalak, 2023ko ekainean.

Dirulaguntzak eskualdean

Hainbat komertzio hasi dira honezkero haien negozioak moldatzen. Buruntzaldea eskualdeko udaletako Euskara zerbitzuek iragarri dute sistema hori euskaraz jartzeagatik dirulaguntza lerroak prestatu dituztela edo horretan ari direla. Nabarmendu dute fakturak euskaraz egiteko sistema instalatzeak hizkuntza horren normalizazioan beste urrats bat

egiteko aukera ematen duela, herritarren hizkuntza eskubideak betetzen ari direla bermatzen dela, eta bezeroei tratu on bat ematea ahalbidetuko duela. Halaber, zehaztu dute tiketak euskaraz inprimatuz 123/2008 dekretua beteko dutela komertzioek, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzkoa.

Lan mundua estrategikoa da euskararen normalizazioan eta Ticket Bai sistema arlo hori euskalduntzen laguntzeko baliagarria izan daiteke. Zentzu horretan, negozio bat duten dendariak beren herriko Euskara zerbitzuekin harremanetan jartzera eta dirulaguntza eskatzera animatzen dituzte eskualdeko udalek.



Eskualdeko laguntzak

Andoain

Laguntza: euskara hutsean, %50eko laguntza, gehienez ere 300€uroko mugapean. Elebitan: kostuaren %30 eta 180 euro, gehienez.

Helbidea: Urigain etxea (1. solairua) La Salle etorbidea, 6.

Telefonoa: 943-30 08 31

Helbide elektronikoa: euskarazerbitzua@andoain.eus

Astigarraga

Laguntza: kostuaren %30 eta gehienez, 250 euro.

Helbidea: Erribera kulturunea, Kontxa Etxeberria plaza.

Telefonoa: 943-33 50 64

Helbide elektronikoa: kultura@astigarraga.eus

Hernani

Laguntza: 300 euro asko jota.

Helbidea: Gudarien plaza 1, 1. solairua.

Telefonoa: 943-33 70 29

Helbide elektronikoa: euskara@hernani.eus

Lasarte-Oria

Laguntza: guztizkoaren %50. Gehienez, 300 euro.

Helbidea: Kale Nagusia 33, 2. solairua

Telefonoa: 943-37 61 84

Helbide elektronikoa: euskara@lasarte-oria.eus

Urnieta

Laguntza: 250 euro

gehienez, guztizkoaren %30.

Helbidea: San Juan plaza, z/g

Telefonoa: 943-00 80 33

Helbide elektronikoa: euskara@urnieta.eus

Usurbil

Laguntza: Oraindik ez dute prestatu.

Helbidea: Irazu kalea, 4.

"Bezeroek aukera izan behar dute arreta eta fakturak euskaraz jasotzeko"



Urnieta On Bizi merkatarien elkarteko lehendakari Aintzane Ledesma. AIURRI

Aintzane Ledesma Ileatelier ile apaindegiko jabea da. Urnietan du denda (Maximo Yurramendi kalea, 30), eta herri horretako On Bizi merkatarien elkarteko lehendakaria ere bada. Beste merkatari asko eta asko bezala, Ticket Bai sistema ezarri behar du, eta hasi da lanean honezkero. Azaldu duenez, bere negozioiko bezero gehienak euskaldunak dira, eta elebitan ezarriko du, euskaraz zein gaztelaniaz. "Euskaraz artatuak izan nahi duten bezeroek aukera izan behar dute fakturak ere hizkuntza horretan jasotzeko; tiketak euskaraz inprimatu ahal izatearena da Ticket Bai sistemari ikusten diodan abantaila bakarra", adierazi du. "Herritar bat euskalduna

bada eta komertzio batean arreta eta fakturak euskaraz jasotzen baditu, konfiantza emango dio horrek, eta, gainera, eskubidea du horretarako".

Aurreikusten zuena baino inbertsio txikiagoa egin behar izan du Ledesmak bere ile apaindegian, eta hori "albiste ona" izan dela onartu du, merkatarientzat "zailak" izaten ari diren garai hauetan. Dendek fakturazio sistema hori euskaraz jartzera anima daitezzen, uste du "funtsezkoa" dela aukera horretaz "behar bezala" informatzea, dendariak jakin dezaten badutela hau egiteko aukera: Ticket Bai erabiltzeko software informatikoa euskaraz instalatu, eta tiketak hizkuntza horretan inprimatzeko.



"Naturalki erabaki dugu Ticket Bai sistema euskaraz jartzea"



Xixori belar denda Andoaingo Txitibar plaza, 4 zenbakian dago. TXINTXARRI

Jone Etxeberria villabonatarak 1993. urtean hartu zuen Andoaingo Xixori belar denda, eta ia 30 urte daramatza mota askotako produktu ekologikoak saltzen

herritarrei. Aurtengo azarotik aurrera, Ticket Bai sistema erabili beharko du zergak egiteko, eta, TXINTXARRI-ri kontatu dionez, "apurka-apurka" ari da ezartzen.

Azkenaldian, esate baterako, dendan dituen produktuen BEZak sartzen ari da, banan-banan, eguerdietan, denda bezeroei itxita dagoenean. "Gehienak sartu ditugu, baina oraindik ez dugu guztia prest; hilabete hauetan gauza berri dezente ikasi beharko ditugu. Errazak dirudite, baina ahalegina eskatzen dute, den-dena zuzen egin ahal izateko".

Fakturazio sistema hori euskaraz jartzea erabaki du Etxeberriak, "naturalki". "Duela gutxi izan genuen bilera bat Andoaingo Udalarekin, eta beste merkataria batekin hizketan, esan nion euskaraz jarriko nuela Ticket Bai". Kontatu duenez, bezero gehienekin hizkuntza horretan egiten dituzte salmentak Xixorin, eta saltzen dituzten

produktu gehien errotulazioak euskaraz dituzte, esaterako, ontziratu gabe saltzen dituzten zereal eta fruitu lehorrak. "Bezero batzuek esaten didate ez dutela ulertzen zer jartzen duen, eta horrelakoetan, nik azaltzen diet". Hasiera-hasieratik ahalegindu dira elikagaien eta bestelako produktuen izenak euskaraz nola diren jakiten eta dendan jartzen: "Bezero bat etorri zen behin, eta galdetu zidan ea garagardo legamia ba ote genuen, eta ez nion ulertu, *levadura de cerveza* nahi zuela esan zidan arte".

Tiket ereduak

Ticket Bai sistemarekin lanean hasten direnerako tiket eredu batzuk prestatu ditu Etxeberriak, hamar zehazki, eta horietan irakur daitezkeen hitz ia guztiak euskaraz inprimatzen dituzte beti, jatorrizko produktuaren izena euskaraz ez dagoen kasuetan salbu. "Xixori hartu nuenetik, tratua eta salmentak euskaraz egitera ohituta nago, nahiz eta

bezero guztiak ez diren euskal hiztunak, eta horrela jarraituko dut aurrerantzean ere".

Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaratu duen egutegiaren arabera, txikizkako merkatariek, ostalariek eta ostatu sektoreko negozioek aurtengo azarorako izan beharko dute prest Ticket Bai sistema. Egokitze lanak egiten ari dira Xixorin, eta oraindik den-dena prest ez badute ere, urte amaierarako sistema berriarekin lan egiteko moduan izango direla esan du Etxeberriak. Egin behar izan duen inbertsioari dagokionez, beste komertzio batzuen baimo txikiagoa izan da, duela lauzpabost urte berri biltzen tresneria: ordenagailu, irakurgailu eta baskula bana jarri zituen orduan.


Goizez zein arratsaldez irekitzen ditu ateak Xixorik. "Ongi lan egiten ari gara: betiko bezeroez gain, jende gaztea ere etortzen da dendara". Aurrerantzean hala jarraituko dutela espero du Etxeberriak, baita Ticket Bai sistemarekin lanean hasi ondoren ere.

TicketBAI

EUSKARAZen onurak

- Ticketak euskaraz ere ateraz 123/2008 Dekretua beteko da, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzkoa, alegia.
- Herritarren hizkuntza-eskubideak betetzen direla bermatzen da.
- Euskararen normalizazio-prozesuan aurrera egiten lagunduko duzu.

ZURE BEZEROEI TRATU ON BAT EMANGO DIEZU



Jubenil taldea finalerako pauso bakarrera dago

Ostadar Boleibola saileko Jubenil taldea Gipuzkoako Ligako lehen lau postuen lehian dago murgildua. Apirila hasieran Fortuna 1-3 garaitu ostean, kanporaketa alde du. Hilaren 30ean, 16:00etan bigarren partida jokatu du Mailaen Chourraut kiroldegian

Txintxarri

Partida garrantzitsua jokatu du Ostadar SKTko Jubenil taldeak apirilaren 30ean, larunbarekin; Gipuzkoako txapelketako finalerako sailkapena du jokoan.

Talde urdin-beltza hirugarren sailkatu zen Ligan. Sailkapeneko lehen lau taldeak –Aldapeta Maria A, Fortuna KE, Ostadar SKT eta Hernani KE– irabazlea erabakiko duen fasea jokatzen ari dira.

Bi partidako kanporaketa sistemaren bitartez, Fortuna eta Ostadarrek indarrak neurtu dituzte. Apirilaren 2an jokatu zuten lehen partida Donostiako Pio Baroja kiroldegian. Lasarte-Oriako taldeak 1-3 garaitu zuen Fortuna KE. Partida borrokatua eta berdindua izan zen. Lehen zatia galdu arren (25-19), ederki erantzun zuen Ostadarrek eta hurrengo zatietan jokoak finduz, 26-28, 23-25 eta 23-25 gailendu zen.



Jubenil mailako taldea, Ligako partida batean lehian. TXINTXARRI

Aipatu legez, apirilaren 30ean, 16:00etan jokatu dute bigarren partida Mailaen Chourraut kiroldegian. Oraingoan ere norgehiagoka borrokatua espero dute. Helburua garaipena eta finalerako sailkapena izango dira.

Partida atzeratua

Kadete mailako taldearen kasuan, apirilaren 3an amaitu zuen Eskolarteko Liga eta A Multzoko

bosgarren postuan sailkatu zen herriko taldea.

Apirilaren 30ean 9. eta 12. postuak erabakitzeke lehia hasi behar zuen arren, Txingudiren aurkako partida atzeratua izan da.

Postu hauek erabakitzeke itzuli bakarrekota liga bat jokatu dute lau taldek. Talde urdin-beltzaren arerioak Txingudi BHI, Fortuna KE eta Hernani KE izango dira.

Eguzki Arkupe Rehabilitaciones taldea, garaipenaren bila

Lasarte-Oriako taldea 1. Mailako bigarren postua lortzeko borrokan ari da; lau talde daude lehian

Txintxarri

Eguzki Arkupe Rehabilitaciones, Oiartzun, Euskalduna eta Teep Tolosala. Gipuzkoako 1. mailako bigarren postuaren lehia bizia da. Ligako azken bi jardunaldietan sartu dira eta lau taldeek bigarren postua lortzeko aukerak dituzte –Eguzki, Oiartzun eta Euskaldunak 51 puntu dituzte; Teep Tolosalak, berriz, 50–.

Lasarte-Oriako taldea da egun bigarren; postuan mantendu eta Gipuzkoako txapela lehiatu ahal izateko hurrengo bi partidak irabazi beharko litzuzke.

Apirilaren 29an, ostiralarekin, Gaintxuren aurka neurtuko ditu indarrak. Azken norgehiagokan, berriz, lehiakide zuzena izango du aurkari, Euskalduna. Partida Mailaen Chourraut kiroldegian jokatu da.

Ez da helburu erraza, baina Eguzki Arkupe Rehabilitaciones taldeko kideak Gipuzkoako txapelketako finalera iristeko gogoz daude.

Ezin finalean egon

Infantil mailan, berriz, herriko taldeko taldeak ezin izango du Gipuzkoako txapelketako finala jokatu.



Ligako neurketako jokaldia. TXINTXARRI

Apirilaren 10ean, finalerdiko bigarren partida jokatu zuen Eguzkik Donostian. Aukera askorik ez zuen taldeak etxean 3-7 galdu baitzuen. Hala ere, gogotsu atera ziren txikiak zelaira.

Partida gogorra izan zen. Donostiako taldeak nola edo hala partida irabazi nahi zuen eta Eguzkiko jokoak oztopatzeko zakar jokatu zuen. Lasarte-Oriako taldeko kideek ezin izan zuten ezer egin; aurkariak, ordea, aukerak sortu eta sei gol egin zituen.

Nahiz eta ezin kanporaketa gaintu, Gorka Redondo entrenatzailea pozarren dago g a z t e t x o e k e g i n d a k o denboraldiarekin.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
OHOREZKO ERREGIONAL MAILA
Ostadar SKT - Hernani CD Larunbata. 16:35. Michelin kirol gunean.
GORENGOEN MAILA, IGOERA
Ostadar SKT - Vasconia CD Larunbata. 18:00. Michelin kirol gunean.
ERREGIONALEN 1. MAILA, IGOERA
Ostadar SKT - Anaitasuna CD Igandea. 17:30. Zubieta Z4, Donostian.
OJM, MAILA MANTENTZEKO FASEA
Ostadar SKT - Santo Tomas Lizeoa KE Larunbata. 11:20. Michelin kirol gunean.
JUBENIL 1. MAILA, KOPA
Ostadar SKT B - Santo Tomas Lizeoa KE Igandea. 17:30. Zubieta Z5, Donostian.
Intxurre KKE - Ostadar SKT A Larunbata. 11:00. Elorri, Alegian.
OKM, MAILA MANTENTZEKO FASEA
Lazkao KE - Ostadar SKT Ostirala. 19:15. Arizti Handi, Lazkaon.
KADETE 1. MAILA, IGOERA
Antigua Luberrri KE A - Texas Lasartearra CF Igandea. 13:50. Berio, Donostian.

KADETE 1. MAILA, KOPA
Ostadar SKT B - Mundaiz SD C Larunbata. 14:50. Michelin kirol gunean.
Santo Tomas Lizeoa KE B - Ostadar SKT A Igandea. 10:00. La Salle, Donostian.
ARETO FUTBOLA
1. MAILA
Gaintxu AFT - Eguzki Arkupe Rehabilitaciones Ostirala. 20:20. Bekoerrota kirol., Lezon.
2. MAILA
Eguzki ISU Leihoak - Ttakun AFE Ostirala. 20:50. Mailaen Chourraut kirol.
SASKIBALOA
SENIOR 1. MAILA
Astigarragako Mundarro - Ostadar SKT Ostirala. 20:15. Astigarragako kiroldegian.
SENIOR 2. MAILA
Luberrri Baserria KMO - Ostadar SKT Ostirala. 19:30. Antigua Luberrri BHI, Donostian.
SENIOR 3. MAILA
Ostadar SKT - Arri BKL Gaztelu Larunbata. 14:00. Mailaen Chourraut kirol.
J. ERRENDIMENDU, FASE FINALA
Ostadar SKT - Mondragon Unibertsitatea Larunbata. 18:00. Mailaen Chourraut kirol.

KADETE ERRENDIMENDU
Ostadar SKT - Panelfisa TAKE Larunbata. 09:30. Mailaen Chourraut kirol.
K. PARTAIDETZA, FASE FINALA
Easo Sorgintxulo - Ostadar SKT Igandea. 12:00. Benta Berri, Donostian.
BOLEIBOLA
JUBENILAK, AZKEN FASEA
Ostadar SKT - Fortuna KE Larunbata. 16:00. Mailaen Chourraut kirol.
ERRUGBIA
14 URTEZ AZPIKOA, 3-4 POSTUA
Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT - Bera Bera RT B Igandea.
PILOTA
LAU ETA ERDI, SENIORRA 1. MAILA
Intza KE - EPLE Larunbata. 16:15 (3. partida). Michelin kirol gunean.
LAU ETA ERDI, JUBENILA 2. MAILA
Zazpi Iturri - Intza KE (Diaz de Guereñu) Ostirala. 19:15. Larrunbarri, Amezetan.
Intza KE (Urdanpilleta) - Intxurre

Larunbata. 16:15 (2. partida). Michelin kirol gunean.
LAU ETA ERDI, KADETEA 2. MAILA
Intza KE - Intxurre Larunbata. 16:15 (1. partida). Michelin kirol gunean.
IGERIKETA
KIROL ZEHAZTASUN LIGA
Buruntzaldea IKTko benjaminen Kirol Zehaztasun Ligako 5. jardunaldia lehiatuko dute. Larunbata. 15:30. Majori kirol., Ordizian.
SAN MARCIAL SARIA
Buruntzaldea IKTko absolutu, junior eta infantil mailako kirolariak San Marcial Sarian egongo dira lehian. Larunbata. 16:00. Azken Portu kirol., Irunen.
ALEBIN LIGA
Buruntzaldea IKTko alebinez Ligako 5. jardunaldian parte hartuko dute Larunbata. 17:45. Usabal kirol., Tolosan.
IGERIKETA EGOKITUA
Buruntzaldea IKTko Nahia Zudairek Gaztela eta Leongo Nazioarteko sarian lehiatuko da. Larunbata eta Igandea. Valladoliden.

ATLETISMOA
GIPUZKOAKO TXAPELKETA
Ostadar Atletismo Eskolako kideek Gipuzkoako txapelketako hirugarren jardunaldia lehiatuko dute. Igandea. 10:00. Mojategi, Arrasaten.
LASTERKETA
SANTA KRUTZ KROSS HERRIKOIA
Herriko korrikalariek XLII Santa Krutz kross herrikoian parte hartuko dute. Igandea. 10:30. Andoainen.
NAFARROA XTREM
Herriarrak edo herriko taldeetako ordezkariek GR 322 Nafarroa Xtrem lasterketan izango dira lehian. Larunbata. 07:30. Zubiri, Nafarroan.
DUATLOIA
AZKOITIKO DUATLOIA
Herriko kirolariek Azkoitiko XIX. Duatloian parte hartuko dute. Distantzia motzeko (10km - 41km - 5km) Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko txapelketa egongo da jokoan. Larunbata. 15:45. Azkoitian.

Atletak, dominaz domina Gipuzkoako txapelketan

Aire zabaleko denboraldiak aurrera darrai. Herriko atletek mila ezberdinetako Gipuzkoako txapelketetan lehiatu dira eta guztira zortzi domina jantzi dituzte. Maiatzaren 1ean, Eskolarteko Gipuzkoako Txapelketako hirugarren saioa izango dute

Txintxarri

Atleta gazte zein beteranoek bi hitzordu nagusi izan zituzten hilaren 9an eta 10ean. Larunbatean, Adin Txikiko eta Master mailako Gipuzkoako txapelketako lehen saioa lehiatu zen Ordizian; igandean, berriz, Eskolarteko Txapelketako bigarren jardunaldia jokatu zen. Bietan herriko ordezkariak izan ziren. Ostadar Atletismo saileko kideek guztira sei domina berri jantzi zituzten; master mailan, Atletico Renteriaiko kide Jose Ramon Latorre herritarra ere podiumeko gorenean izan zen 100 m. proban eta Zumeatarra taldeko Unai Somovillak 18 urtez azpiko zilarrezkoa lortu zuen 1.500 m. proban.

Adin Txikiko txapelketako lehen jardunaldian pisu jaurtiketa proban eskuratu zituzten posturik onenak Ostadar Atletismo saileko kideek, lau domina. Aitor Eizaguirre garaile izan zen 16 urtez azpiko mailan; Eneko Andonegi (20 urtez



Adin Txikikoen Gipuzkoako txapelketan parte hartu zuten atletak. OSTADAR ATLETISMOA


azpiko maila) eta Aiala Ramos (16 urtez azpiko maila) bigarren izan ziren eta 16 urtez azpiko mailako hirukoa itxi zuen Nora Manzanalek.

Jauzi hirukoitzean, 16 urtez azpiko mailako Oinatz Almagro laugarren izan zen, eta June Garcia, seigarren.

Horiez gain, tal urdin-beltzeko Axier Elvira, Hodei Garcia, Iraia Alkorta, Alex Alkain eta Dunix Muñoz kideek ere parte hartu zuten saioan.

Zumeatarra taldeko Unai Somovilla herritarrak ere parte hartu zuen 1.500 metroko lasterketan, eta 18 urtez azpiko mailan bigarren izan zen. Master mailan ere izan zen Lasarte-Oriako ordezkariarik, eta podiumera igo zen, gainera. Jose Ramon Latorrek (Atletico Renteria) 100 metroko lasterketa irabazi zuen.

Jardunaldi horretan atletismo egokituko probak ere jokatu ziren. Jon Mendoza eta Ane Asensio



LOTMEko kideak, probak amaitu ostean. LOTME

Zarautz eta Ondarroan, gozatzuz

Lasarte-Oriako edo herriko taldeko ordezkariak ez dute atsedetik hartu. Hilaren 24an, Zarauzko Pagoeta Mendi Lasterketan eta Ondarroako Boga Martxi! 2022 mendi martxan izan ziren.

Zarautzen Lasarte-Oria Trail Mendi elkarteko (LOTME) Josean Lasak (02.39.55) eta Mertxe Casasek (03.05.13) 21 kilometroko ibilbidea egin zuten. Probako lasterketa mistoan ere izan zen herritarrik. Idoia Telleria eta Urko Garmendia bikoteak 58.19 denboran egin zuen 8 kilometrotako ibilbidea.

LOTMEko beste kide batzuek, berriz, Bizkaiko mendi martxan parte hartu zuten. 22 kilometroko ibilaldiaz gozatu zuten, giro onean.

Ostadar Inklusioko kideek lehiatu zuten, 100 metroetan.

Bi domina eskolartekoan

Eskolarteko Gipuzkoako txapelketa lehiatu zen igandean Irunen. Bertan taldeko hogeitaz gaztetok parte hartu zuten eta nabarmentzekoak dira alebin mailan Eider Redondok lortutako bi dominak eta Alex Apariciok 500 metro lasterketako laugarren postua. Redondok luzera jauzian, lehen postua lortu zuen 4,94 marka izugarria eginez. 60 metro hesi

proban, berriz, zilarrezko domina jantzi zuen.

Alabaina, ez dira horiek izango herriko atletek lortuko dituzten azken dominak eta markak. Txikienek Eskolarteko Txapelketako hirugarren jardunaldia lehiatuko dute maiatzaren 1ean; Adin Txikiko zein Master mailako txapelketei dagokionez, maiatzaren 7an eta ekainaren 4an proba batzuk lehiatuko dituzte, batez ere, 16 urtez azpikoak. Bigarren saioa ekainaren 12an egingo dute.

Etxeberriak ederki egin du debuta Espainiako txapelketan

Buruntzaldea IKTKo igerilariak bere marka ondu du 50 m. libre proban. Pazko astean, igerilariak bi egonaldiz gozatu dute

Txintxarri

Buruntzaldea IKTKo Garazi Etzeberria Absolutu eta Junior mailako Espainiako txapelketan lehiatu izan zen lehengoz. Hilaren 9tik 13ra Torremolinosen (Malaga) antolatu zen lehiatu bi probatan parte hartu zuen herriko igerilariak, eta 50 m. libre proban marka ondu zuen.

100 metroetako estilo libre proban ekin zion txapelketari. Lehen aldiaren urduritasuna nabaria zen arren, 1.01,48ko marka egitea lortu zuen. 50 metro libre proba ere urduri hasi zuen arren, bere marka pertsonala



Garazi Etzeberria, lehiatzeko prest.

BURUNTZALDEA IKT

ehuneko batzuetan hobetu zuen, 28.49.

Bestalde, igeriketa taldeak Pazko Astean egonaldia antolatu zituen. Osasun egoera tarteko,

azken bi urteetan ezin izan dute irteerarik egin. Infantil eta juniorrak Pirinioetara egin zuten bidaia, hilaren 20tik 23ra; txikiagoak, berriz, Baztan aldean izan ziren 22an eta 23an. Helburua taldekideen arteko harremanak sendotzea izan da, Buruntzaldea IKTKo prestatzaileek azaldu modura.

Zaharrenek entrenamenduak eta aisia saioak uztartu zituzten bitartean, txikiak ederki gozatu zuten rapela, ferrata bidea eta ur-jauziak egiten zein Bertiz Abentura Parkean.

Lau hitzordu izango dituzte igerilariak asteburuan. Txikienek KZLko eta Alebin Mailako Ligako saioetan parte hartuko dute; senior eta juniorrak San Marcial sarian lehiatuko dira; eta Nahia Zudaire, berriz, igeriketa egokituko Gaztela eta Leongo nazioarteko sarian.

LOKEko gimnastak, bikain Aresketa eta Leioako Torneoetan

Herriko gimnastika taldeko kideak bi txapelketetako podiumetan izan dira banakako zein taldeko lehiatan

Txintxarri

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) gimnastak Amurrion eta Leioan izan ziren lehiatu hilaren 9an. Aresketa eta Leioako Udala Torneoetan parte hartu zuten eta lehen postuetan izan ziren herriko elkarteko kideak.

LOKEko ordezkariak zabalenak Amurrioko Aresketa Torneoan parte hartu zuen, eta guztiak lehen postuetan izan ziren.

Senior mailako Mirian Prieto hiru alditan igo zen podiumera. Mazo lanean lehen sailkatua izan zen; hirugarren postua eskuratu zuen pilota lanarekin eta sailkapen

orokorrean bigarren izan zen. Infantil B mailakoek ere dominak irabazi zituzten. Maiane Sarmientok zein taldeak urrezko domina jantzi zuten pilota eta uztai lana egin ostean, hurrenez hurren. Mailen Aranzabek, berriz, bosgarren postuan amaitu zuen txapelketa. Bestalde, Kadete B mailako taldea Leioako Udala torneoan izan zen lehiatu eta bigarren postua eskuratu zuen uztai eta pilota lanari esker.

Maiatza eta ekainean lehiatuko diren Gipuzkoako txapelketetako prestatzen ari dira LOKEko kideak asteotan.

Manso bigarren sailkatu da Opakuako igoeran

Mikel Kortajarena eta Ekaitz Kortajarena anaiak Bidasoa Rallya lehiatu dute. Bestalde, 2020. eta 2021. urteetako txapelketen sari banaketa antolatu du Euskadiko Automobilismo Federazioak. Aitor Mansok zein Kortajarena anaiak ere sariak jaso dituzte

Txintxarri

Hilaren 9an, Opakua igoera (Araba) lehiatu zen. Lehia irekia zegoen; azken denboraldietan nagusi den Joseba Iraolak ez zuen parte hartu. Aitor Manso herritarrak hutsune hori baliatu nahi zuen podiumeko lehen postura igotzeko, baina eguraldia eta arazo mekaniko bat aurka izan zituen.

Mansok ezin izan zuen entrenamendu saioetan BRC B49 ibilgailua ongi berotu. Entrenamendu libreetako bere tartean euria egin zuen eta ofizialean ezin izan zuen igoera amaitu. "Lehen entrenamenduan euria egin zuen eta ezin izan zuen ibilgailua ongi probatu. Entrenamendu ofizialean, berriz, azeragailuarekin arazoak izan nituen eta lasterketa utzi behar izan nuen", azaldu du gidari gazteak.

Bi lasterketa kronometratuetan bere onena ematen saiatu zen herritarra, eta bere denbora ondu zuen arren, ezin izan zuen Garikoitz Floresen marka gainditu. Beraz, bigarren postuarekin konformatu behar izan zen. "Erritmoa galdu nuen entrenamenduen arazoarekin. Gero, lasterketetan, beroketa pixka bat gehiago behar nuela somatu nuen. Arazorik izan ez banu, lehia



Aitor Manso, BRC B49 ibilgailuan Opakuako igoera lehiatzen. AITOR MANSO

egongo nintzatekeela uste dut", onartu du Mansok.

Garikoitz Flores nafarrak irabazi zuen proba. Aurten Joseba Iraolarekin batera Mendi Igoeren zein CMPromo mailako txapelketan arerio gogorra izango dela adierazi du Mansok. Aia-Andatza igoeran bigarren izan zen Flores. "Esperientzia handiko gidaria da. 15 urte daramatza lasterketan parte hartzen. Espainiako txapelketako probetan ere lehiatzen da", adierazi du.

Bidasoako rallya

Manso ez da denboraldia hasi duen herritar bakarra. Mikel Kortajarena eta Ekaitz Kortajarena anaiak Bidasoako Rallya jokatu zuten hilaren 1ean eta 2an.

Euren Citroen Saxo VTSak seigarren eremuan arazoa izan zuten palierarekin eta ezin izan zuten saioa amaitu. Alabaina, arazoa konpondu eta rallya bukatu ahal izan zuten.

Hainbat sari

Hilaren 10ean, Euskadiko Automobilismo Federazioko kideak eta gidariak Agurainen (Araba) bildu ziren 2020. eta 2021. urteetako txapelketako sariak banatzeko, eta herriko gidariek hainbat sari jaso zituzten.

Mendi Igoeren atalean, Aitor Manso herritarrak hiru sari jaso zituen. 2020. urtean hirugarren postua eskuratu zuen eserleku bakarrek mailan; 2021ean C7 mailako Euskadiko txapelketan izan zen, eta eserleku bakarrek sailkapeneko bigarren.

Herritarra pozarren dago sariak jaso ahal izateagatik: "Ez genekien sari banaketa egongo zen. Pozik nago aitortzarekin eta bi denboraldi hauetan lortutakoarekin". Hurrengo urteko ekitaldian egoteko lan egingo duela aitortu du.

Rallynean, berriz, Kortajarenak lehen motako saria jaso zuen, 2020. urteko garaila izan baitzen.

Gaztediren ahaleginak ez ziren nahiko izan entsegu marrara iristeko; Barçak, ordea, markagailua loditzen jarraitzen zuen eta amaieran 64-0 zen markagailua.

Denboraldia porrotarekin amaitu arren, taldeko kideak pozarren daude egindako lanarekin.

Zorierik ez

Bestetik, Nerea Loyarte herritarrak Unibertsitate mailako Espainiako txapelketa lehiatu zuen hilaren 20an. Leongo Unibertsitateko taldean aritu zen herriko jokalaria; tamalez, ez zuen partidari irabazi ahal izan.

Senior 3. Mailako taldea, 9. eta 16. postuak erabakitzeke lehia

Ostadarreko taldea bigarren fasetik kanporatua izan da. Senior 1. Mailako taldeak, berriz, partida garrantzitsua du

Txintxarri

Ez da posible izan. Senior 3. mailako taldeak ezin izan du bere ligako bigarren fasean aurrera egin. Aurkari zaila zuen aurrean eta eta Maialen Chourrauten gertatu legez, Elorri-Aldapa nagusi izan zen Alegiako Elorri frontoian jokatu zen bigarren kanporaketan; 71-40 gailendu zen etxeko taldea.

Lehen zatian erritmo bizkorra ezarri zuen Elorri-Aldapak eta errenta handia hartu zuen; lehen laurdena 27-7 amaitu zen eta bigarrena, berriz, 48-19. Bigarren zatian aldiz jokoa lasaitu zuen eta Ostadarrek gehiago jokatu ahal izan zuen, hala nola, laugarren zatiko partziala bederatzinako berdinketa izan zen.

Lehen postuetako lehiatik kanpo geratu da Alberto de La Calek zuzentzen duen taldea; txapelketa ez da amaitu, ordea. Senior 3. mailako taldeak 9. eta 16. postu arteko borroka hasiko du hilaren 30ean, larunbatarekin. Arri BKL Gaztelu taldea izango du aurkari 14:00etan, Maialen Chourrauten kiroldegian.

Partida garrantzitsua

Saskibaloiko saileko gainerako taldeak ere azken jardunaldietan



Maialen Chourrauten kiroldegian jokatu zen lehen kanporaketako irudia. TXINTXARRI

sartu dira. Hala nola, senior 1. mailako taldeak hilaren 29an, ostiralarekin, Ligako azken partidari egingo dio aurre. Astigarragako Mundarro taldea izango du aurrez aurre.

Puntuak lortzea garrantzitsua izango da Endika Marrahik zuzentzen duen taldearentzat. Egun zazpigarren postuan da 21 punturekin eta jaitziera faseko partida ekiditeko bosgarren izan beharko luke. Baina ez dago guztia bere esku, CD Internacional (23 puntu), Digitarte Hoops (22 puntu) eta Oiarso SKT (21 puntu) taldeek ere helburu bera izango dute.

Vithas Gaztedik ezin izan du igoera fasean aurrera egin

Bartzelonaren aurka lehiatu da Ohorezko B Mailarako igoera fasean eta katalanak nagusi izan dira

Txintxarri

Aizpea Racamonde herritarra kide duen Vithas Gaztedi taldea Ohorezko B Mailarako igoera fasetik kanpo geratu da. Gasteizko taldeak Bartzelonaren -igoera lortzeko faboritoetako bat- aurka neurtu zituen indarrak La Teixonera zelaietan, Bartzelonan.

Vithas Gaztedik ederki borrokatu eta defentsa gogorra egin arren, etxeko taldeak bere nagusitasuna erakutsi zuen hasieratik eta markagailuan izan zuen isla; atsedenaldira 31-0 iritsi ziren.

Bigarren zatian, jokaldi estatikoetan aurre hartzea lortu zuen Gasteizko taldeak. Alabaina,



ISAAC FARRÉ RICO

Udako denboraldiaren zain

Udaberriko denboraldia amaitu da Donostiako Hipodromoan. Apirilean zehar lau ostiraletan (1, 8, 15 eta 22), hogeita lasterketa gozatu ahal izan dute zaletuek. Aterpea merkatarien elkarteko kideen izenak izan dituzte nagusiki sariak; hirugarren saioan Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako kirol ekimenen izenak zeramatzen. Aipatzekoa da hirugarren jardunaldian Angel Sanchez herritarrak entrenatutako Mr Sunshine Emakumeok Mugimenduan saria irabazi zuela. Gainera, lehen postuetan jockey emakumeen presentzia ere handia izan da jardunaldi guztietan. Bost asteko atsedena izango du Hipodromoak, eta ekainaren 1ean udako denboraldiari irekiko dizkio ateak.

KOMIKIA



ZORION AGURRAK




Nahia
Gure etxeko printzesak 10 urte bete ditu! Zorionak! 10 urte eder pasa ditugu jaio zinenetik, eta beste pila zurekin gozatzeko falta zaizkigunak! Infinito maite zaitugu; Ekhi, Aita eta Amatxo.



Maialen
Maialen, zorionak! Ondo pasa zure 17. urtebetetzean, bihotzez. Leire, aitona-amona eta familiaren partetik.



Begoña
Gure erreginak urte sexya hasi du! Datorren urterako ospakizun data gordetzen hastea komeni zaigu... hilabete beranduago, baina ederki pasako dugu! Muxu asko familiaren partetik, pastelxo!



Nagore
Zorionak kuarentaza! Berrogeialdi ederra datorriz hemendik aurrera... zure egunean ez nintzen gogoratu, baina hau ez zenuen espero e! jajaja

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 29	URBISTONDO	EGUNEKO FARMAZIAK: 09:00-22:00
LARUNBATA, 30	GIL	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
IGANDEA, 1	GIL	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
ASTELEHENA, 2	GANDARIAS-URIBE	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
ASTEARTEA, 3	DE ORUE	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
AZTEAZKENA, 4	DE MIGUEL	GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
OSTEGUNA, 5	LASA	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00

M. Gomez Bravo: Kale Nagusia 14, Hernani. 943-55 48 92

URTE OSOKO GUARDIAK APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen
Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

OHARRA

Errigorako produktuen banaketa Ttakunenean

Errigorako kideek jakitera eman dute Nafarroa hegoaldeko produktuen eskaera egin duten herritarrek maiatzaren 3an, 4an, 10ean eta 11n euren sorta jaso ahalko dutela Ttakunenean.

Banaketa ordutegiak honakoak izango dira: maiatzaren 3an eta 10ean, 14:00etatik 17:00etara eta maiatzaren 4an eta 11n, 9:00etatik 11:00etara eta 14:00etatik 17:00etara.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

inmolasarte
Etxea saldu edo alokatu nahi baduzu jar zaitez gurekin harremanetan. Esperientzia handia dugu. Esku onetan zaude!
943-53 64 81 | 629 63 18 38
Iñigo de Loloia, 2 behean.
LASARTE-ORIA
info@inmolasarte.com

SALDU

Marina D'Oro urbanizazioko (Castellon) etxebizitza bat saldu nahi

dut, hondartzako lehen lerroan kokatua: 68 metro ditu, hamalau metroko terraza, bi gela, bi bainugela, sukaldea eta egongela. Lasarte-Oriako edo inguruko etxebizitza batengatik ere trukatu gogoratu. Harremanetarako zenbakia: 675 70 39 06

ERRENTAN EMAN

Errioxan, Alesancotik gertu, 60 metro karratadun apartamentua alokagai. 60 metro karratadun lorategia du, bista paregabeak, baita igerileku komunitarioa ere. Ekainetik irailera

alokagai, hamabostaldika. Nahi izanez gero argazkiak bidaltzeko prest. Harremanetarako zenbakia: 666 88 0917.

LANA

ESKARIA

Umeak zainduko nituzke. Harremanetarako zenbakia: 695 18 41 79.

Prest nago adineko pertsonak orduka zaintzeko edo tabernari zein sukaldari gisa aritzeko. Harremanetarako zenbakia: 663 49 98 41.

Garbitzaile lanak egiteko prest nago, orduka.

Harremanetarako zenbakia: 618 81 43 63.

Pertsona eskaintzen da interna modura lan egiteko. Esperientzia dut

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA
Modulo txikia. 12 € (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA
Modulo handia. 20 € (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus
646 82 44 66

eta berahala hasteko prest nago. Harremanetarako zenbakia: 627 20 61 10.

Lan bila nabil. Hoteletan garbiketara lanak egiteko, edo etxeetan. Pertsonak zainduko nituzke orduka. Esperientzia handia eta erreferentziak. Harremanetarako zenbakia: 671 76 35 58.

Adineko pertsonak zainduko nituzke. Zaintza ikastaroa egina dut. Interno edo orduka lan egiteko prest nago.

Harremanetarako zenbakia: 676 18 84 11.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egiteko nuke. Etxeko lanetan, garbiketara... Esperientzia handikoa eta profesionala garbiketara. Harremanetarako zenbakia: 673 55 62 89.

BESTELAKOAK

HEZKUNTZA

Unibertsitateko ikaslea naiz, eta DBH mailako eskola partikularrak emateko zein edozein adineko umeak zaintzeko eskaintzen dut nire burua,

edozein momentu eta ordutegitan lan egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 644 98 03 49. Zientzia esparruko erreferentzia saio partikularrek eskaintzen ditut. DBH eta Baxilergoko ikasleentzako, irakasgai askotan: Matematika, Fisika, Kimika, Marrazketa, Teknologia, Biologia eta Geologia. Ingeniaritza Mekanikoko gradua eta bigarren hezkuntzako masterra ditut. Harremanetarako zenbakia, 697 45 97 96.

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldua eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Iratzi Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maitane Rebe, Julen Basterra,
Nerea Segura, Lierni Rekondo
eta Aizpea Amas.

Banatzaileak:

Unai Bardaji, Oier Boccos, Lide
Hidalgo, Uxue Odriozola, Julene Iraola,
Egoitz Epelde, Jose Lanchas
eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzua
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.500 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

"Euskal literaturak barbaroak behar ditu"



Oriarte BHIko ikasle talde honek tarte atsegina igaro zuen Joseba Sarrionandia idazlearekin. ORIARTE INSTITUTUA

JOSEBA SARRIONANDIA IDAZLEA

Oriarte institutuko Literatura Unibertsaleko ikasleek euskal idazle ezaguna elkarrizketatu dute. Luze hausnartzeko galderak ez ezik, motz erantzutekoak ere egin dizkiote

Literatura Unibertsaleko ikasleak

Joseba Sarrionandia (Iurreta, Bizkaia, 1958) euskal idazlea Oriarte institutuan izan zen martxoan, Idazleak ikastetxeetan programaren eskutik. Bi hitzaldi egin zituen: goizean, Batxilergoko ikasleentzat; eta arratsaldean, berriz, guraso zein irakasleentzat. Hemen Literatura Unibertsaleko ikasleek egindako elkarrizketa.

Gaur egungo euskal literaturaren inguruan zer ikuspuntu duzu?

Ni idazten hasi nintzen euskal literaturarik ez zegoen, hainbat autore solte zeuden eta ez zegoen sistema literarioirik. Orain, oster, badago, idazle pila bat, eta denak, nire ustez, orokorrean, maila onekoak. Euskal literatura homologagarria da Europako beste hizkuntzetako literaturarekin. Azken 40 urte hauetako lana ikusten da.

Nik ikusten dut literaturak pixka bat esperimentala izan behar dela; hau da, hizkuntza estandarra gainditzeko espazioa da, erregistro berriak lortzeko.

Iruditzen zait euskal literatura nahiko estankatuta dagoela: lortu genuen lengoaia literario estandar bat Bernardo Atxaga, Ramon Saizarbitoria, Anjel Lertxundi eta beste batzuekin batera, literatura kultu bat sortu genuen, lengoaia kultu bat; hala ere, nire ustez zertxobait estankatuta dago arrakasta horretan, ezta?

Orduan, edozein literatura dago beti barbaroen zain, Kavafis-ek badu poema bat oso polita dena, eta bertan azaltzen da Erromako inperioan daudela barbaroen zain, berrikuntzen zain edo dena delakoen zain, alegia. Horregatik pentsatzen dut euskal literaturak barbaroak behar dituela, eta azken hamarkadetako barbaroak, batez ere azkenengo hamarkadetan, izan dira emakumeak, esaterako, Miren Agur Meabe eta berak idatzitako *Kristalezko begia*.

Emakumeek aldatu dute literatura, berrikuntza ekarri dute zentzu askotan, bai edukian, baita hizkuntzan ere. Eider

Rodriguezen *Eraikuntzarako materiala* irakurri dut orain dela gutxi, adibidez. Aire berria ekarri dute emakumeek. Baina, horretaz gain, ikusten dut lenguaie kultista horren arrakastan estankatu egin dela pixka bat euskal literatura. Nik espero dut barbaro gehiago etortzea, esate baterako, emigranteak; izan ere, Euskal Herriko biztanleriaren zati handi bat emigranteena da eta, hala ere, idatzi denean emigranteen iluspegitik, *Riomundo* edo *Miñan* liburuetan, adibidez, idazten da euskara oso kultista batean, eta nire ustez, kontraesan apur bat dago horretan. Espero dut emigranteek beste lengoaia bat txertatzea euskal literaturan. **Literaturarekiko interes hori betidanik izan duzu edo gertaera jakin batekin lotuta sortu zitzaizun?**

Ni idazten hasi nintzen inork ez zuen euskaraz idazten. Nik euskara galduta edo erdi galduta neukan eta, Franco hil zen urtean, gau eskolan sartu nintzen. Erdi

klandestinoak ziren, ez ziren legalak, eta gauz joaten zen jendea alfabetatzera, idaztera. Behin idazten ikasi, eta maisuak eskatu zidan; izan ere, berak *Argia*-n idazten zuen berriemaile moduan, eta galdetu zidan ea bere lan hori egin nezakeen. Era horretan hasi nintzen kronikak idazten.

Gero, unibertsitatera sartu nintzen urtean, 18 urterekin, Ruper Ordorikak deitu zidan Pott deitzen zen talde bat sortzeko. Egun batean esan zidan ea nahi nuen joan, Bernardok [Atxagak] esan ziola nirekin hitz egiteko eta hara joan nintzen. Orduan, 70. hamarkadaren amaieran, fanzine bat ateratzen genuen. Orduan arte debekatuta zeuden aldizkariak hasi ziren.

Abangoardia literarioari buruzko fanzineak ziren, kontrakultura moduko zerbait egin nahi genuen aldizkari horretan. Orduan argitaratu zen *Etiopia*, Atxagaren liburua; nire ustez, euskal literaturan oso inportantea den poesia liburua. Lengoia aldatu zuen.

Zuek jakitun zineten ari zinetela euskal korronte literario berria sortzen?

Ez, gauzak gertatzen diren momentuan ez dira batere garrantzitsuak, eta egiten da lagunarteko gauza bat bezala. Nik alde egin eta gero, egon nintzen hamabost urte ezer jakin gabe eta, norbait ikusten hasi nintzen, mutil bat etorri zen eta esan zidan batxilergoan nire liburua irakurri behar zutela derrigortuta. Barkamena eskatzeko zorian egon nintzen; izan ere, niretzat gauza oso arraroa zen. Oso bazterreko euskara ezagutu nuen eskoletan. Eskolan irakurtzen genituen liburua ziren Jose Maria Pemanenak eta horrelakoak, autore oso espagnol eskuindarrenak.

Nire liburua eskolan! Zer lotsa ematen zidan.

Oriarten, bigarren mailan, 'Kolosal izango da' irakurtzen dugu aspalditik... Hitz batean, nola deskribatuko zenuke zure burua?

BIDE BATEN HASIERA

Oriarte institutuak eta TXINTXARRI aldizkariak elkarlanean jardungo dute aurrerantzean. Hilean behin, ikastetxe horretako mintegietan aritzen diren ikasleek landu dutenaren berri emango dizute, esku artean duzen berripaper honen bidez. Literatura Unibertsaleko ikasleek prestatu dute lehen artikulua: Joseba Sarrionandia idazleari egindako elkarrizketa.

Ez dakit, esango nuke erdi naufragoa.

Euskal Herrian geldituko zara?

Bai.

Hurrengo liburua argitaratzeko datarik baduzu?

Bai, maiatzerako daukat bat aurreikusita.

Beste galdera batzuk egingo dizkizugu orain, erantzun motzekoak.

Nik ez dakit laburtzen.

Bi gauzen artean aukeratu beharko duzu. 'E-book' ala papera?

Papera. *E-book* bat nik ez dut inoiz erabili, ez daukat. Kuba, medio aldetik, atzeratuago dago.

Tapa gogorra ala biguina liburuetan?

Zer nahiago duzu?

Berdin zait.

Poesia ala prosa?

Ez zait inporta... Poesia asko gustatzen zait, baina poesia liburua oso gutxi gustatzen zaizkit. Ehun badaude, batekin soilik konektatzen dut, eta prosari dagokionez, irakurgarriagoa da, ehunetik 40 bat gustatzen zaizkit.

Mendia ala hondartza?

Biak gustatzen zaizkit, gaztetan mendira gehiago joaten nintzen, baina Kuban ohitura galdu nuen, han ez delako halakorik: mendiak badaude, baina inori ez zaio burutik pasatzen igotzea.

Anbotora igo zara?

Bai, baina aspaldi. Buelatu nintzenetik ez naiz igo.

Euskal Herria ala Kuba?

Hemen gelditu behar dut, ama daukadalako. Batez ere, berarengatik.

Irakurtzerako orduan, orriak eustekoa erabiltzen duzu?

Ez, nik txakur belarriak egiten ditut.

Zer nahiago duzu, uda ala negua?

Uda ala negua, nongoa? Hemengo uda eta Kubako negua.

Eta bukatzeko, eguna ala gaua?

Zertarako? Eguna.

"EMAKUMEEK ALDATU DUTE EUSKAL LITERATURA, BERRIKUNTZA ASKO EKARRI DITUZTE"

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN

UDABERRIKO BERTSO SAIOA

Maialen Lujanbio
Ane Labaka
Alaia Martin

UDABERRIKO BERTSO SAIOA
Apirilaren 30ean
19.30ean
Lasarte-Oriako
Manuel Lekuona
kultur etxean

Gai jartzailea: Bea Egizabal
Dantza / Margolariak / Umorea / bat-batekoak

LASARTE-ORIA Bertsoak. Ttakun Kultur Elkarteak eta udalak udaberriko bertso saioa antolatu dute. Ane Labaka, Maialen Lujanbio eta Alaia Martin igoko dira oholtza gainera, eta hainbat gonbidatu berezi ere bai, Bea Egizabal aktorea tarteko. Bertsoa beste hainbat diziplinarekin uztartuko dutela iragarri dute antolatzaileek, dantzarekin, margogintzarekin eta umorearekin besteak beste. Egitaspora joan nahi dutenek badute sarrerak erosteko azken aukera. Sei euroan jarri dituzte salgai eta kultur etxeko leihatilan edota Kutxabank-en orrialdean eros daitezke. Apirilaren 30ean, Manuel Lekuona Kultur Etxean, 19:30ean.

OSTIRALA 29

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Lasarte-Oriako Extremadura Etxeak sagardo artean agurtuko du apirila, barrikotea egingo du. Bazkide diren herritarrek 25 euro ordaindu beharko dituzte, eta ez direnek, 30. Aforoa mugatua izango da. Extremadura etxea, 21:00etan.

LASARTE-ORIA Erakusketa

Noaingo bataila lau artisten begiradapean erakusketa antolatu dute eta hilaren 29a izango da hori bisitatzeko azken eguna. Sarrera doakoa da. Mercero gunea, 18:30etik 20:30era.

LARUNBATA 30

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Jalgi kafe antzokiak Tximista Eguna antolatu du. Eguna osokoa izango da egitaraua: 12:00etatik aurrera, bermuta eta urdaiazpiko ebakitzailea. 19:00etan, Xilikona taldearen kontzertua. 20:30ean, The Noise Makers taldearen kontzertua Jalgi Kafe antzokia, 12:00etatik aurrera.

LASARTE-ORIA Jaialdia

Jokin Telleria lasarteoriarrak sortutako egitasmoak, Dantz Point izenekoak, herriko ondare historiko edo artistikoa eta musika elektronikoa uztartzea du helburu. 19:00etatik 00:00etara egingo dutela iragarri dute. Bi DJk girotuko dute eguna: Paolo Solo-k eta Furonia-k. Ama Brigitarren komentuko plaza, 19:00etan.

IGANDEA 1

LASARTE-ORIA Zinema

Orkestra Lurtarra haurrentzako filma proiektatuko dute. Sarrerek 4 euro balio dute. Manuel Lekuona, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

La peor persona del mundo helduentzako filma proiektatuko dute. Sarrerek 6 euro balio dute. Manuel Lekuona, 19:30ean.

ASTEAZKENA 4

LASARTE-ORIA Opera

Il puritani opera proiektatuko dute. Sarrerek 7,5 eta 9 euro artean balio dute. Manuel Lekuona, 19:00etan.

OSTIRALA 6

LASARTE-ORIA Zinema

El callejón de las almas perdidas filma proiektatuko du Okendo Zinema Taldeak. Sarrerek 6 euro balio dute. Manuel Lekuona, 20:30ean.

LARUNBATA 7

LASARTE-ORIA Antzerkia

Noa uy, uy, uy! familia antzezlan taularatuko du Panta Rhei teatro taldeak. Sarrerek 4 euro balio dute. Manuel Lekuona, 20:30ean.


IGANDEA 8

LASARTE-ORIA Erromeria

Lasarte-Oriako Udalak eta Ttakun Kultur Elkarteak erromeria antolatu dute Azkorte baselizan. Egitaraua: 11:00etan, meza. 12:00etatik aurrera, herri kirolak. Bien bitartean, Ttirriki Ttarraka eskolako lagunek girotuko dute erromeria. Azkorte igotzen diren herritarrek indarrak berritzeko jaki ugari izango dituzte aukeran: salda, txorizoa edo odolkoa. Edariak ere eskatu ahalko dituzte. Azkorte, 11:00etatik aurrera.

ZINEMA

HERNANI	20:15.	Larunbata 30	Ostirala 29
BITERI		12:00, 16:00,	17:00.
'La cima'		19:00, 22:00.	Larunbata 30
Ostirala 29		Igandea 1	12:10, 17:00.
22:30.		Ostirala 29	Igandea 1
Larunbata 30		21:25.	19:00, 22:00.
19:30.		Larunbata 30	'El juego de las llaves'
Igandea 1		21:25.	Ostirala 29
19:30.		Igandea 1	21:05.
'Orkestra lurtarra'		Ostirala 29	Larunbata 30
Larunbata 30		15:55, 19:10,	12:20, 21:05.
16:30.		21:40.	Igandea 1
Igandea 1		Larunbata 30	12:20, 21:05.
16:30.		12:15, 15:55,	'El secreto de Vicky'
		19:10, 21:40.	Ostirala 29
USURBIL		Igandea 1	15:50, 18:05.
URBIL		Ostirala 29	Larunbata 30
'Dog. U'n viaje salvaje'		12:05, 15:50,	18:05.
Ostirala 29		Igandea 1	12:05, 15:50,
20:15.		Ostirala 29	18:05.
Larunbata 30		Ostirala 29	'Go fish: salvemos el mar'
20:15.		16:00, 19:00,	
Igandea 1		22:00.	



LABURPENEA

'La peor persona del mundo'

Zuzendaria: Joachim Trier. **Gidoia:** Joachim Trier, Eskil Vogt. **Argazkia:** Kasper Tuxen. **ekoizleak:** Coproducción Noruega-Francia-Dinamarca; Oslo Pictures, Snowglobe Films, arte France Cinéma. **Iraupena:** 128 minutu. **Generoa:** Drama, komedia, erromantzea. **Aktoreak:** Renate Reinsve, Anders Danielsen Lie, Herbert Nordrum, Silje Storstein, Maria Grazia Di Meo, Hans Olav Brenner, Marianne Krogh, Vidar Sandem.

Bizitza norabidez aldatu asmoz

Juliek 30 urte beteko ditu eta bere bizitza hondamendi existenziala da. Bere talentua maila batean alferrik galdu duela sentituko du, eta bere mutil lagun Akselek, bera baino nobelagile grafiko arrakastatsua, presioa egingo dio bere sormen energiari eusteko.

Gau batean, festa batera joango da eta Eivind izeneko

gazte xarmagarria ezagutuko du. Akselekin harremana etetea aitzakia izango du, bere bizitzak beste norabide bat izateko itxaropenarekin. Hala ere, konturatuko da bizitza aukera batzuetarako beranduegi dela.

Drama, komedia eta erromantze istorio batean murgilduko dira ikusleak.



**ELECTRICIDAD
ARREGUI**

600 85 75 86
www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com (on-line denda)

Etixerako argia erakusketa berria dugu

Diseinu berritzaileena | Argi eta intentsitate erregulatzailarekin






Zatoz ikustera diseinu berriak!

Argi eta intentsitate mugimenduarekin!

Material elektrikoa • Argiak • Etxetresna elektrikoak • TB/HI-FI • Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia, 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21





**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

CIFP USURBIL LHII

HARTU
HITZORDUA!!!

Ate Irekiak

943-36 46 00
adkomunikazioa@lhusurbil.eus

www.lhusurbil.eus

Maiatzak 4

Erdi Maila: 16:00 - 17:30
Goi Maila: 17:30 - 19:00

Maiatzak 7

Erdi Maila: 10:00 - 11:30
Goi Maila: 11:30 - 13:00



txintxarri

Aste Santuko ARGAZKI LEHIAKETA

Bidali zure argazkia maiatzaren 1a arte (1a barne)

. 646 82 44 66 (whatsapp)

. txintxarri@ttakun.eus

SARIAK:

EPaimahaiarena: AVENIDA TABERNAN BI MENU

IRAKURLEENA: ERRIGORA OTAR EDER BAT

Argazkia: Diény Portinanni